

BERRIKETA GUTXI

EZ HANKA EZ BURU

 **ADUR LARREA**
www.adurlarrea.com

Poltsa



IMANOL EPELDE PAGOLA
27zapata.eus

Urte batzuk badira ez gaituela Guardia Zibilak etxeko atea ostikoz botata esnatzen, ez gaituela kontroletan umiliatzen, metraileta, poltsa eta auzitegi nazionalarekin mehatxatzen. Ez lehen bezainbeste behintzat.

Urte batzuk badira senideak 40 minutuz bisitatzeko 900 kilometrora joan eta 900 kilometro etorri behar ez dugula. Ez garela errepide bazterretan hiltzen; ez gaituztela manifestazioetara atera bezain azkar jipoi-tzen. Ez, behintzat, lehen bezainbeste.

Baina, hor daude munstro denak gure subkon-zientean. Hitz egin dezakegu, baina ez osoki. Beraien filtroetatik pasatzen ez den guztia terrorismoa da oraindik. Ez dute indarra ageriko egiten, ez dutelako beharrik. Otzandu gara. Otzandu gaituzte. Baina, nik dakidala, munstroak ez dira egun batetik bestera ain-geru bihurtzen. Ezta ipuinetan ere.

Nori sartzen diote orain burua Intxaurrendoko kuarteleko bainuontzian, nori jartzen diote poltsa ar-nasarik gabe geratu arte, zein bortxatzen dute orain inpunitate osoz Guardia Zibilen kuarteletan. Eta gu ez gara enteratu ere egiten. Zein isolatzen dute espetxee-tako bakarkako moduluetan, zein zigortzen dute orain patiora atera gabe, zein urruntzen dute bere bizileku-tik infinituraino, zeintzuk dira orain errepidean hilda-ko dispersioaren biktimak, zein dira gaurko Mikel Za-balzak, zein etxetara sartzen dira goizeko ordu bietan, zeini botatzen dizkiote ateak ostikoz, zein dira gaurko Enrique Galindo eta José Barrionuevo, zein inkomuni-katzen dute bost egunetarako, zein lurperatzen kare artean. Nor geratzen da orain isilik?

Marlaska aurpegia du oraingo Espainiako demo-kraziak. Guapoa, bizarra ondo eginda, begirada erru-gabea. Besarkatzeko gogoia ematen du. Baina, guk badakigu, Marlaskaren aurretik bost egunez inkomu-nikatu eta torturatu zituzten euskal herritar mordoa pasatu zirela. Eta lehen ikusten ez zuena orain agindu egiten duela. ●

